Agintariak eta Langileria

Izendapenak, Egoerak eta Gorabeherak

JUSTIZIA, LAN ETA GIZARTE SEGURANTZA SAILA

7077

EBAZPENA, 2008ko abenduaren 3koa, Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza Saileko Zerbitzu zuzendariarena, zerbitzu eginkizunen sistemaren bidez Gizarte Gaien Arloko arduradun lanpostua, Zigor Betearazpenaren Zuzendaritzari atxikitakoa, betetzeko deialdia ebazten duena.

Gizarte Gaien Arloko arduradun lanpostua, 510262/4 kodekoa eta administrazio publiko guztiei irekia, zerbitzu eginkizunen bidez betetzeko deialdi publikoa iragartzeko ebazpena eman zuen, 2008ko urriaren 9an, Saileko Zerbitzu arduradunak (193. zenbakiko EHAA, urriaren 9koa), eta ebazpen horretan xedatutakoarekin bat etorriz, ondokoa

EBATZI DUT:

Lehenengoa.– Roberto Moreno Alvarez jauna zerbitzu eginkizunetan izendatzea, Gizarte Gaien Arloko arduradunaren lanpostua betetzeko (taldea: A; maila: 27; berariazko osagarria: II-C; kodea: 510262/4). Lanpostu hori Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza Saileko Zigor Betearazpenaren Zuzendaritzari atxikita eta Vitoria-Gasteizen kokatuta dago.

Bigarrena.– Izendapenak 2008ko abenduaren 22tik aurrera izango ditu erabateko ondorioak.

Hirugarrena.– Ebazpen honen aurka Gora jotzeko Errekurtsoa aurkeztu dakioke Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza Saileko Kabinetearen sailburuordeari, hilabeteko epean, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunaren biharamunetik kontatzen hasita.

Vitoria-Gasteiz, 2008ko abenduaren 3a.

Zerbitzu zuzendaria,
TERESA AMEZKETA ALEGRÍA.

Autoridades y Personal

Nombramientos, Situaciones e Incidencias

DEPARTAMENTO DE JUSTICIA, EMPLEO Y SEGURIDAD SOCIAL

7077

RESOLUCIÓN de 3 de diciembre de 2008, de la Directora de Servicios del Departamento de Justicia, Empleo y Seguridad Social, por la que se resuelve la convocatoria para la provisión, por el sistema de comisión de servicios del puesto Responsable Área de Asuntos Sociales adscrito a la Dirección de Ejecución Penal.

De conformidad con lo dispuesto en la resolución de 9 de octubre de 2008 de la Directora de Servicios del Departamento por la que se anunciaba la convocatoria pública para la provisión por el sistema de comisión de servicios del puesto Responsable Área de Asuntos Sociales código 510262/4, abierto a todas las administraciones públicas (BOPV N.º 193 de 9 de octubre).

RESUELVO:

Primero.– Nombrar a don Roberto Moreno Alvarez en comisión de servicios para el desempeño del puesto Responsable Área de Asuntos Sociales código 510262/4, Grupo A, nivel 27, complemento específico II-C adscrito a la Dirección de Ejecución Penal del Departamento de Justicia Empleo y Seguridad Social con destino en Vitoria-Gasteiz.

Segundo.– Dicho nombramiento surtirá plenos efectos desde el día 22 de diciembre de 2008.

Tercero.– Contra la presente Resolución, podrá interponerse recurso de alzada ante la Viceconsejera del Gabinete del Departamento de Justicia, Empleo y Seguridad Social en el plazo de un mes a partir del día siguiente a la publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

En Vitoria-Gasteiz, a 3 de diciembre de 2008.

La Directora de Servicios,
TERESA AMEZKETA ALEGRÍA.